

Bilbon, 1995eko urriaren 27an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Davant, J.L.
 Goenaga, P.
 Diharce, X.
 Goenaga, P.
 Krutwig, F.
 Larre, E.
 Oihartzabal, B.
 Ondarra, P.
 Peillen, Tx.
 Salaburu, P.
 Sarasola, I.
 Satrustegi, J.M.
 Villasante, L.

Lizundia, J.L., idazkariorde-kudeatzailea

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1995eko urriaren 27an, goizeko hamarretan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren kideak etorri dira. P. Charritton, A. Irigoyen eta X. Kintanak beren ezin etorria adierazi dute.

Agiriak

Irailako bi agiriak onartu dira, zenbait zuzenketa eginik. I. Sarasolak hitza eskatu du, "isilpeko agiriak" deitu dituenengatik bere kezka agertzeko. Izan ere, A. Irigoyenek Usurbilen tratatu zena zabaldu du, izkribu baten bitartez, *erkidego* hitzaz harituriko erabakia dela eta. Kezka bera agertu dute P. Altunak eta J.M. Satrustegik. Euskaltzaindiaren pareko erakundeetan lege edo ohitura da esanak eta erabakiak gordean edukitzea, batzartuen iritziz. E. Knörrek eskatu du epe bat irekitzea eta gai horren gainean datozkeen proposamenak hurrengo batzar batean eztabaidatzea. Horrela onartu da.

Hiztegi Batua. Euskara Batua

Almendra-arratsalde hitz saila (47. zenbakiduna) onartu da egungo batzarrean. X. Kintanaren oharrak P. Salaburuk azaldu ditu.

Apai / *apez* auzian, forma biak onartu dira, baina *apai*-i lehenasuna emanaz. *Apartamentu* onetsi da, ez -du. *Apostu* / *apustu* bikoteaz eztabaidatu da eta gehiengoz *apustu* forma onartu, halaber *akuario*, ez *aquarium*, eta *arrangura*, *arrenkura* aldaeraren kaltetan.

I. Sarasolak *arazi* ez dela hiztegian agertuko esan du, beti loturik idatzi behar baita. Beste zenbait hitz (*aldarri*, *aparkatu*, adib.) zerrendan zergatik ez diren sartu galdetu du P. Goenagak. Batzordekideek honako hau lehen zerrenda dela erantzun dute.

Hurrengo batzarrerako orriak (*arraultza-azuzena*) banatu dira. Orobat -*ari* atzizkiari buruzko erabakizuna, eta -*ari* / -*ario* arazoaren gainekoa.

Erkidego hitzaz Usurbilgo batzarrean onartu txostenari azken ukituak eginik aginteei helarazi zaiela aditzera eman da. Nafarroako presidenteari eskuz eman zitzaion, Zuzendaritzak eta Nafarroako ordezkariak hilaren 18an egindako bisitan.

Kontinenteen, geografia izen nagusi batzuk eta herritarren izenak deritzan txostena (49.a) aztertu da halaber egungo batzarrean. Zenbait zuzenketarekin onartu da testua. Besteak beste, *ozeaniar* gehitu da eta *Antartika*, ez *Antartika*, onetsi da, eztabaidaren ondoan; Exonomastika batzordeak proposatzen zuen *-k* -dun formaren aldeko botoak 5 izan dira, 7 aurka eta 4 zuri. Erabaki horrek *Artika* ekarriko luke, berebat *t*-aren ondoan *k*-rik gabe. Hala ere, Onomastika batzordera itzuliko da puntu hau, tokiaz, herritarraz eta adjetiboaz (*Itsaso Artikoa? Itsaso Antartikoa ?*) argibidea eman dezan.

Hizkuntza hilak eta klasikoak izeneko txostena (50.a) aztertu da gero. P. Ondarrak horrela iradokirik, akitanieraren gainean ez da inolako azalpenik erantsiko. Onomastika batzordearen proposamenetik beste bi gauza aldatu dira: *zelta* onartu da, ez *kelta*, bozketaren emaitza honako hau izan delarik: *zelta*-ren alde 8 boto, *kelta*-ren alde 4, eta 4 zuri, eta *greko* / *greziera*-ren ondoan *klasikoa* kendu da.

Azaroko batzarrean aztertuko diren *Estatuetako hizkuntza ofizialen izenak* eta *Nazio bat baino gehiago hartzen duten akzidente geografikoen izenak* tituludun txostenak banatu dira.

Caro Baroja

Hurrena, J.M. Satrustegik eta E. Knörr-ek txosten bana irakurri dute joan den abuztuan hil zen Julio Caro Baroja euskaltzain ohorezkoari buruz. Satrustegi jaunak Caro Barojaren antropologia eta etnografia alorrak ukitu ditu, eta E. Knörrrek, berriz, hizkuntzen, eta batez ere, euskararen ikerketan Caro Barojaren ekarpenak.

Jagon saila

Miren Azkarate Jagon sailburuak aurkeztu du gero *Jagon sailaren egitasmoaz* deritzan txostena. Azken urteotako lana aipatu du Azkarate andereak lehen partean. Bigarrean euskal erakunde eta lantaldeekin harremanak sortzeko premia eta asmoa azaldu du. Hezkuntzan, komunikabideetan eta administrazioan egin beharreko lanak adierazi ondoren, Euskaltzaindiaren corpusaren gizarteratzeaz eta Jagon sailaren beselako eginkizunez eta osaeaz mintzaturik bukatu du Azkarate andereak bere txostena.

P. Goenagak, txostenagatik goresmenak eman ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskararen Institutua ez dela aipatzen esan du. M. Azkarateren iritziz, Euskal Herriko Unibertsitatearekiko harremanek bi aldetako batzordea dute bide egokia. Bestalde, P. Goenagak Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaritzara bidaltzen diren itzulpenagatik kezka bizia agertu du. J.L. Lizundiak eginkizun horren historia kontatu du. Testu ofizialek, eta, batez ere, Espainiako Gobernuaren Euskal Herriko Ordezkaritzatik etortzen direnek, itzulpen bakarra izateko premiagatik Gasteizen berrikusi izan dira azken urteotan. Kudeatzailearen ustez, baliabideak ezarri ezik lan hori utzi beharko du, tamalez, Euskaltzaindiak.

J.A. Aranak ere goraiatu du txostena. Testuan hainbat proposamen egiten direnez, Zuzendaritza sailburuekin bil dadin eskatu du. Hala onartu da.

Gero, ezteiak euskaraz egin ahal izateaz Donibane Lohizuneko alkatesari idatziko zaion gutunaren zirriborroa aurkeztu du Jagon sailburuak. Iparraldeko euskaltzainek sinatuko duten gutun horrek bi puntu ditu. Lehenbizikoan aitortzen da legeari dagokiola Alliot-Marie andereak arrazoi duela. Bigarrenean, berriz, Euskaltzaindiak 1994ko ekainean Miarritzen onartu zuen adierazpena, ofizialkidetasuna eskatuaz, gogorazten zaio, honako hau parada ona dela horri buruzko urratsak egiteko esanez. Aho batez onartu da testua.

Eskuartekoak

J.A. Aranak nota labur bat irakurri du Gabriel Ramos Urangari buruz. Berriki hil den pintore eta grabatzaile honek Euskaltzaindiarentzat egin lana aipatu du bereziki, hots, egoitza nagusian diren bi beirateak.

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutzaren laguntzaz urteoro antolatzen dituen literatur sariak direla eta, epaimahaiak izendatu dira. Iazko berberak izango dira, hots.

Txomin Agirre eleberri sarian: X. Gereño, Tx. Peillen, Ana Toledo.

Toribio Alzaga teatro sarian: E. Arozena, D. Landart, P. Urkizu.

Felipe Arrese Beitia olerki sarian: J. Kortazar. M. Lasa, J.M. Lekuona.

Mikel Zarate saiakera sarian: A. Arejita, A. Eguzkitza, A. Irigoyen.

Usurbilgo Udaletik Udarregi bertsolariaren mendeurren batzordeak bidali duen esker onezko gutuna irakurri da.

Valentzian bihar, hilaren 28an, izango den ekitaldia aipatu du gero J.L. Lizundia jaunak. Institut d'Estudis Catalans-ek argitaratu berri duen *Diccionari de la llengua catalana* -ren aurkezpena dela eta, katalan eremuko 14 unibertsitate-errektore gonbidatu dira, orobat Europa eta Ameriketako berrogeita hamartsu katalan sailetako irakasle eta hizkuntza erromanikoen akademia buru guztiak. Gonbidapena Euskaltzaindiari ere iritsi zaio. J. Haritschelhar eta J.L. Lizundia joango dira.

Txomin Peillenek argitaratu berri duen *Parlons euskara* liburua (Paris, L'Harmattan. 1995) aurkeztu du. Goresmenak eman dizkiote batzarkideek.

J.A. Arana diruzainak 1995eko balantzea, (ekaina artekoa), azaldu du ondoren. Onartu da. Madrilgo Gobernutik Euskaltzaindira datorren dirua BBV-n, mailegua lortzeko baldintza gisa, sartu beharraz P. Goenaga zalantzak agertu ditu.

Erreneria izenaz Onomastika batzordeak onaturiko txostena irakurri du batzordeburuak, auziaren ingurukoak azaltzeaz batera. Batzarrak birretsi du txostena.

Euskaldunon Egunkaria-n kazetolari den Patxi Petrirenak orain arte egin duen atala utzi berri duela eta, E. Knörr-ek proposatu du Euskaltzaindiak bere esker ona agertzea, Akademiaren erabakiak hain trebeki eta leialki zabaldu dituelako. Onartu da.

Eta beste gairik ez zela, amaitu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria